# Bizkai euskera idatziaren morfologia-eredurako zertzeladak

*Adolfo Arejita*

## 0. Sarrera

Mendebalde alkarteak eratu dituan jardunaldiotan, eta gai nagusitzat mendebaldeko euskera daben honeetan, zilegi bekit gure hizkunzki, euskalki, elki edo dialektoaren izendapenaz zeozer gogoratzea, honezaz lehenago be idatzita nago baina.

Izen bat baino gehiago emon izan jakoz mende eta belaunaldien joan-etorrian mendebaldeko euskerari. Urteokaz *bizkaiera* dabil zabalen, auzokoari deitzeko *gipuzkera* darabilgun moduan. Eta halan zabaldu da izendatze-modu hori ifar eta ekialde guztira, *lapurtera* eta *zuberera* izen bitxi samarrak eihoteraino.

Harik eta Bonaparteren dialektologia-ekarriak egin ziran arte, hizkunzkia administrazio-lurraldeaz nahastau izan da. Izan be, Bizkaia izendapen geografiko eta administratiboa da. Eta Kardaberazek berak, gure euskera-mueta adierazoteko, beti joten dau edo Señorioa, edo Bizkaia, edo Bizkaiko euskera edo hizkera aitatzera, eta beste horrenbeste Gipuzkoarako. Mogelek, berrogei bat urte beranduago, izendapen finkatuagoak erabiliko ditu. Behin *Bizkai euskera* (edo *giputz euskera*), behin *Bizkaiko euskera*. Baina euskalkiaren mugak eta Jaurerri-

Probintzien artekoak bardinak ez dirana jakin eta autortuagaitik, kutsapen-arrazoiak emongo ditu desegokitasun horrendako, baina hizkunzkien mugarritze formal batera heldu ezin dala:

> Guiputz garbi garbia billatu bear da Guiputz erdian, ez Frances, Napar, ta Bizcai urrean dauden errietan, ceren erasten zaiez alcarren itzac urrean dauden erricoai. Irun, ta alderetan Frances eusqueraren usaia dute, ala ebaquitzen itzac, nola itzen batzuetan. Elgoibar, Eibar, Vergara, Mondragoe, ta ala beste erricho batzuetan erdi Guiputz, ta erdi Vizcaicoac dirudite, Bizcai urrean daudelaco. (CC, XVI)

Aspaldion *mendebaldeko euskera*, *mendebal euskera* eta antzeko izendapen barriagoak aintzakotasuna hartzen hasita dagoz, *Bizkai* erroak dauan ezinbesteko konnotazio politiko-administratiboagaitik, eta berori dala-ta Gipuzkoa eta Arabako lurraldean eredu berau darabilen alderdiak barruan sartzea latzago bihurtzen dalako. *Mendebal euskera* dalako horren barruan ezin inondik bere sartu barik itxi daitekez, gaurregun be, osorik edo erdizka euskaldun diran Aramaio, Oleta edo Legutiano, edo behinola ez hain aspaldian euskaldun ziran Laudio eta Okondo, Araban datzazan herriak guztiak, edota Gipuzkoa mendebaldeko Deba-Leniz eskualdea, euskerearen aldetik aurrekoak baino askoz pisu handiagoa dauana, bai hiztunen kopuruz, bai hizkuntzaren gizarteratze-indarrez eta bardin ekonomiaz.

Gutariko gehienok sarrien entzun eta erabili dogun *bizkaiera* izendapena baino —eta bardin beste euskalkietarako *gipuzkera, laputera* eta antzekoak baino— niri neuri zentzuzkoago eritxi izan jataz lehendik *bizkai euskera*, *giputz euskera* edo *nafar euskera* legezko izenak, zeintzuetan *euskera* dan substantiboa eta *bizkai, giputz, nafar* jatorri-adierazleak. Dan legez dala, gure alkarte honen asmoen artean dago, beroni izena emoten deutsan *mendebalde* osagarria zabaltzea, hizkuntza eta hizkunzkien errealiteari hobeto joakolako, eta aldi berean, alkarte honen sortzaile eta buru izan dan Alfonso Irigoienen gogoagaz be batuago gagozala.

Mendebalde-euskerea agiriko zereginetatarako erabili gura danean eta hizkera-ereduaren zalantzak hartzen gaituanean, ze bide hautatu behar edo hartzea komeni dan harean argitzea emon deutsat neure

buruari zeregintzat. Ze, gura nahi gura ez, aurrez nahi zeharka oratu gura jakola, bizirik dirau hizkunzkien arazoak gurean. Zorionez esango neuke, euskera bera bizi dan seinale dalako hori, eta adierazgarririk seguruena gainera.

## 1. Ereduaren gizarte-erabileraz

Joako ia hogeita hamar urteotako ibiliak garbi erakutsi dau, "bizkaiera", zeinda mamu bildurgarri bat baliz legez, estarian euki gura horrek, ez deutsala inori mesederik ekarri, ez euskaldunoi —ez urrunago ez hurragokooi, eta geure gitxien, jakina!—, ez euskereari, eta hainbat gitxiago euskal hizkuntzaren gizarteratzeari —eta 'euskal' hori zentzurik zabalenean dinot—. Salbuespenak kenduta, mendebaldeko ereduau ez da ikasi, aztertu eta landu izan, ez eskolan ez goi-ikastetxean, ez komunikabideetan —idatzizkoetan ahozkoetan baino gitxiago—, ez administrazinoan —babesten gaituan erakunde hau eta beste gitxi batzuk kenduta—, ez ganekoetan.

Urritasun edo hutsune honen arrazoi nagusia herri-erakundeen babesik ezean datza batez be. Hezkuntza eta Kulturako guneetan 1978 ingurutik gora egin diran ekinak edo sakakak erdi alperrekoak izan dira, erdi-berbakaz edo eduki bako leunkeriakaz kontentuz itxi gura izan da bere euskereaganako eraspen edo sentimentu sakona eukan jende euskalzalea, haginak zorrotzegi erakutsi barik. Baina denpora berean, aurrerapiderik ez konponbiderik emon barik. Euskalkia lantzean mamu gehiegi ikusten ziran, eta bestetik ez zirudian beharbada herrikoiegia euskalkiari legebidea edegiteak.

Horretan Ifarraldeko euskaldunak, edo nafarrak eurak, askatuago jokatzeko moduan izan dira, eta administrazino abertzale baten gerizarik euki ezagaitik, euren apaltasunean *Herria, Seaska,* herri-eskolak, antzerkiak, pastoralak eta beste hamaikatxo ekintza hesi ideologiko estuegi barik garatu izan ditue ezetariko eten barik.

Etena esan dot, ze hegoalde hau, eta guztiz Bizkaiko alderdia, euskerearen historian etenik josita dago. Guduak eta foruen galera izango

ziran sasoi baten, Arana eta Azkueren iraultzak etorriko ziran gero, 37ko gudua ondoren euskerearen isilaldiaz batera. Eta barriro izartu ginanerako aurrekoak ez eban balio. Zamarripa eta Kirikiño eurak be, bata konserbadorea, bestea abertzalea, gurutzifikaturik gelditu ziran. Eta gero Arantzazuko Batzarra etorri zan, euskerearen batasunerako bideak behin betiko edegi eta finkatuko zituana. Ez dot orain horren mesedeez jardungo, horretan guztiok bat gentorkez eta, baina bai oste latzen ganean. Gandiagaren *Elorri* behin betiko ahazturik gelditukо zan harrezkero, edukiz ezeze, hizkera be bai.

Ondoko hamar-hamabost urteak izan dira ilunenak mendebaldehizkerentzat. Euskerearentzat ahula dan lurralde bat, hiztunak euren euskereagaitik harrotasunik sentitzen ez daben paraje bat, eta euskera horri indar emoteko ez adorerik erakutsi ez erakunde indartsurik eregiten jakin ez dauan lurralde bat.

Azken hogeikadan mendebal-euskerea gitxi-asko erabili eta landu izan bada, nekez izan da herri-aginteei eskerrak, gizarte-erakunde, talde eta kolektiboei esker baino. Landu izan dan arlo edo giroen artean honakoak aitatuko neukez: helduen euskera-lantzea (nahi badozue, alfabetatzea), irratigintza, liburugintza, eta maila apalagoan, irakaskuntza eta administrazioa.

Berbetan nagotzuen hau nazana izanda, ezin aitatu barik itxi nei Derioko Udako Euskal Ikastaroak eta geroago ha babestuko eban erakundeak, Labayru Ikastegiak, prozesu horretan guztian bete dauan papera. Inguru horretan sortu dira hogeikada horretan, bizkaiera landua jagoteko ahaleginik arduratsuenak. Ahaleginon ondorena itxura baten hain oldartsua ez izanagaitik, sakonean bai izan dala esango neuke. Beste erakunde eta inguruneetara hedatu daualako eragina, eta han gorpuztu eta sendaturiko euskeraren profesionalak euren lan--esparru barrietan han xurgaturiko sensibilitatea zabaldu dabelako. Eta garrantzirik gitxiena ez leuke liburugintzak izango, ikas- zein literaturaliburuak dirala.

Beste esparru batzutan zuzenbide horretan ezer gitxi egiten zan sasoian, euskaldun helduen eskolatzean urrats sendoak emon dira.

Euskerearen irakaskuntzarako metodologia ziur eta fidagarri bat garatuz batez be. Harako *dakigunetik ez dakigunera,* euskera bizitik hizkuntza idatzira, bizkaieratik batura. Eta metodologia hori erabilgarri bihurtuko eban bitartekoak ipiniz. Gramatika-liburu eta liburuskak, literatura-antologia eta azterbideak sortu eta argitaratu, ikerketa bultzatu diakronia, dialektologia, literatura eta herri-literatura arloetan, mendebaldeko autore klasiko modernoen edizio gaurkotuak atondu, literatura-sorkuntza bizkortu eta honen antzeko beste ekimenen bidez.

Azken urteotan hizkunzki eta tokian tokiko berbaikuneakazko zaletasuna biziroago azaldu da euskal gizartean, eta ez bakarrik mendebaldean, baita erdialde eta ekialdean be. Beka eta diru-laguntzen bidez toki-hizkeren deskripzioak herri askotan egin dira, batez be Bizkai-Gipuzkoetan, baina baita Nafarroan eta Ifarraldean, behinolako Erronkarikoa edo Baztango Maiakoa baino zehatzago eta zeheagoak. Horregaz batera edo horren ostetxoan herri-aldizkariak etorri dira, euretariko batzuk eskualdeko berbaikunea idatziz be lantzen dabela. Halan Eibarren, Arratian, Ondarroan, Lea ibarrean, Bermeon eta beste leku batzutan. Irratietan bide luzea egin da honezkero. Orain hogetazak urte Bilboko Herri Irratian sorturiko euskal irratsaioen kumea dogu gaurko Bizkaia Irratia. Arrate Irratiak be euskalki-bitasuna lantzen dau —hau da, bakotxak erabili dagiala berea— Bizkai-Gipuzkoen muga-tontor horretatik. Eta beste eskualde-irrati batzuk be, autonomiak bideratu dauan lege-babesaz, ekiten deutse gitxi-asko inguruko berbaikuneari, nahiz erdera nagusi dabilen Bizkaiko bertoko emisorarik gehienetan. Eskoletan be ardura gehiago hartzen hasi jako tokiko euskereari, nahiz esparru honetan, heldu euskaldunen irakaskuntzan orain hogetazak urte emon zan pausua emoten aurgoreago egiten dan.

Apurka-apurka bada, bideak edegi ditu zuzen edo zeharka, eufemismoz edo gordinago modu desbardinez izendatu dan euskera-modu horrek: *tokian tokikoa*, *bertokoa* —gurago dot holan esan, *bertakoa* baino, nahiz Durangalde zein Gipuzkoaldean biak bat izan—, *geurea*, *Bizkaikoa*, edo deitura zabalagoz, *bizkaiera, mendebal euskerea* izendatu izan danak.

Baina eragozpen, akats eta nahasteak, ereduagaz topo egiten dogunean azaltzen dira. Zein eredu erabili? zein berba? zein aditz? zein atzizki? zein joskera?

Ez da mira egitekoa askok eredua dala-ta joten daben erosta eta hiletea. Zein da gutariko askok oraindino dogun arazoa? Inguruko eredu bat erabili gura eta erabilteko gai ez garean askok: irakasle, idazle, lokutore, itzultzaile eta ganerako euskera-bizibidekoek? Mendebaldeko euskera-eredua ez dogula ikasi eta landu geure ikasketaldian: ez eskolan, ez institutoan, ez goi-ikastetxean. Lan-praktiketan be ez, zein egunkarian, telebistan, eskolan edo administrazinoan egin ditugun honeek. Bestela esanda, euskera-eredu horretan idatzi daben autoreen testuak bakan edo ia bape ez ditugula landu izan; ez eredu horretako gramatika-ezaugarriak modu sistemaratu eta zehatz batez geugandu. Eta hainbat gitxiago, eredu horretan idazteko saiorik egin. Ez da harritzekoa, bada, hemengo euskaldunen gehiengo nagusi batek arazoak izatea; baina, Axularrek aspaldi idatzia gogoraerazoz, errua ez da euskerarena, euskaldunona baino; hau da mendebaldeko euskaldun askoron adu gaiztoa gaur egun, zorionez urteokaz gauzak bide onera etorten hasi badira be.

## 2. Mendebal euskerearen eredua finkatzeko ahaleginak

Azken hogeitaka urteotan 'bizkaiera' deritxogunaren idatz-eredua finkatzeko saiorik gitxi egin da, eta egin danori be berandutxo.

Derioko Ikastaroa eta Labayru Ikastegiari jagokonez, modu agertu batez ez dau holako ardurarik beregain hartu, baina bai ibilian-ibilian praxi bat landu. Bertako idatzi eta lanetan eredu 'jakin' edi 'berezi' bat erabili dau, baina ez oso-osoan finkatua, "a grosso modo" baino: behin baino sarriago emon dira idazle edo irakasleen artean bikoiztasunak, zalantzak eta ziurbakotasunak. Mikel Zarate eta Karmelo Etxenagusiagaz hasi eta beste batzuekin jarraigoa euki dauan 'bizkaiera batu' antzeko hori *Galburua* sailean, *Idatz & Mintz* aldizkarian, gramatika, bertako literatura edo ariketa liburu-kuadernoetan antzeman daiteke. Prozesu horrezaz kanpo egonagaitik, ez neukez aitatu barik

itxi gura Eusebio Erkiaga eta Lino Akesoloren izenak, ze batak ortografia bateratuaz eta besteak lehengoaz, Derioko Ikastaroaren ibilbidetik hurreko bidea jorratu dabe-ta.

Bide beretsutik ibiliak dira Bilboko Hizkuntza Eskola, Derioko (orai Bilboko) "Andra Mari" Irakasle-Eskola, Ibaizabal argitaletxea eta beste batzuk.

Ez dot ezkutatu gura, idatziz bizkaiera erabili daben talde ugari batek, nik belaunaldi zaharrekotzat joko neukezanak, Azkue eta Aranaren erdibideko koine bat erabili izan dabela. Hau da, lehengo *Agur,* oraingo *Zer* eta *Euskerazaleak* alkarte ingurukoak. Askok besterik uste baleu be, joera hori tradizinoagaz etenzalea gehiago da, hari jarrai zalea baino. Gure literatura klasikoak eten barik 20. menderarte izan dauan bideari uko eginik, Azkuek urratu eban eredu logikazalearen jarraiko dira. Nire uste apalez, bide itsu bat, etorkizun bakoa. Eta hau dinodanean, gogoan dodana ez da ortografia, morfologia eta beste gramatika-alderdiak baino.

Azken urteotan egin diran ahaleginetara bihurturik, gatozan larogehiko hamarkadara. Hezkuntza Sailaren babespean egin ziran ahalegin garrantzitsu batzuk orduan, eta arloz edo eremuz mugatuak izan baziran be, itzal onekoak gertatu ziran, zentzunez eta orekaz egin ziralako. Ondoko arlo honeen inguruan: 1. *Deklinabidea eta Aditza*, 2. *Joskera*.

Bizkai euskera irakaskuntzan erabilteari begira ze eredu erabili finkatzeko, batzorde bat izendatu eban Hezkuntza Sailak bere Euskara Zerbitzuaren bidez. Mikel Zalbide zan, gaurko legez, zerbitzuburu. Baina gaur zerbitzu horretan ez dagoan emakume eragile bat egoan orduan, asmo hori aurrera ateratearren gogotsu ekin eutsana: Itziar Garaizar algortarra. Ni be tarteko izan nintzan horretarako sortu zan batzorde hatan, Labayru Ikastegia, Bilboko Hizkuntza Eskola, Euskaltzaindia, Deustuko Unibersitatea eta bete inguru batzutako gramatikari eta idazleak barruan zirala. Lan-batzorde bat izan zan batetik, eta aholku-talde zabalago bat inguruan. Eta haren frutu izan ziran ondoko lan biak: *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta*

*aditza* (Gasteiz 1983) eta *Bizkaierazko Joskera* (1989). Batzordearen ahaleginaz eta Hezkuntza Sailak hari emon eutsan babesaz ganera, beste ezaugarri garrantzitsu bat izan eban lan harek. Lan-batzordeko izan zan Alfonso Irigoien euskaltzaina, eta haren onespenaz hartu ziran ebatzi guztiak. Aholku-batzordeko izan ziran, besteak beste, Lino Akesolo ikertzailea eta Augustin Zubikarai idazlea. Eta batzordeotan partaide ez izanagaitik, egindako lanari abegi txeratsua egin eta onespen osoa autortu eutsan Eusebio Erkiaga euskaltzain eta idazleak. Idazle hau urrunago be joan zan. Bere azken elaberria (*Jaioko dira...*) eredu horretan moldatu eban, eta arterago idatzirik ebazan bi (*Txurio txoria* eta *Arranegi*) eredu horretara moldatu.

Beste idazle gehiagok be (Oskillaso-k adibidez) eredu horri edo horren hurrekoari jarraitu izan deutse, irakaskuntza eremuko materialgintza ugaria ez aitatzearren. Baina belaunaldi zaharrekoek lehengotik ekin deutse. Idazleetan Zubikarai, Onaindia edo Akesolok. Edo aldizkarietan, *Zer*-ekoek. Erakunderik eraginkorrenak, ostera, eredu horren bidetik abiatu dira. Besteak beste, Labayru Ikastegia, Ibaizabal argitaletxea, Bizkaiko Batzar Nagusiak, eta bardin bizkaiera lantzen daben irakaskuntza edo komunikabide giroek.

Halanda be, oztopo nagusi bat izan dau idazkera-eredu honek bere ibilbidean, edozein bizkaierazko testuk euki leikean berbera: gizarteinguru zabalera hedatzeko indarrik eta bitartekorik eza. Ez da mira egitekoa. Mendebalde honetan ez dogu izan Ifarraldean legez *Herria* bat. Daukagun euskerazko egunkari bakarrak be ez deutso garrantzizko eretxi mendebal euskerea lantzeari. Irrati zein telebista kate indartsuek, herri-komunikabide nagusiek esan gura dot, ez ditue mendebaldeko euskaldunon belarriak gozatu, bertokoa zirudian berbeta--moduari leku emonez. Bestetik, igarri-igarria da literatura-sorkuntzan be hizkera honek erakusten dauan antzutasuna, salbuespen ohoregarriak kenduta.

Gerorago, 1993an, Bilboko Udalak Barrainkua Kulturgelan eratu zituan Jardunaldi batzutan be bizkaiera jardungai izan da, baina ez ereduaren ikuspegitik, ikuspegi orokorrago batetik baino: gizartea, histo-

ria, literatura, hezkuntza, administrazioa, kantugintza, e.a. Jardunaldiotan esanak liburu mardul baten ezarri ziran, eta ekarri estimagarria da han datorrena gai honetara hurreratu gura dauan edonorentzat.

## 3. Finkatze-saio batzuk. Bikoiztasun eta aldaerak euskalki barruan

Mendebal euskerea maila esparru edo zereginen batzutan erabilia izan dadin ginoan, oraindino be eredu-arazoakaz topo egiten dau askoren aldetik, honeek irakasleak, ikasleak, itzultzaileak, esatariak edo bestelako jardunen batekoak dirala.

Ondoko lerrootan, honetariko zalantza batzuk jorratu gura ditut, batzuk mendebaldeko guztiontzakoak diranak, beste batzuk beharbada eskualde edo berbaikera batzutarako diranak. Inondik be ez dau sistematikoa izan gura jorra honek; adierazgarri diran ginoan, handik--hemendik baturiko zertzeladak baino ez dira.

### 3.1. *Aditz jokoan*

Laguntzaileak maiztasun handikoak izanik, eurotatik hasiko gara.

*EDUN iragankorrean honako batzuk aitatuko ditugu:

– DAUAN / DABEN, DABEN / DABEEN. *Dau* aditzaren mendeko formak *dauan, dauala* erara edota *daben, dabela* erara emon leitekez, eta pluralekoak *daben, dabela* edota *dabeen, dabeela*. Bardin 1. pertsonan *nau* adizkitik *nauan / naben* ditugu nork = 3. s. pertsonarako. Eta 3. p. danean *naben / nabeen*. Bigarrenok indartsuagoak dira tradizinoan berez, baina aspaldiko joera nagusia bestelakoa dan ezkero, nahastegarriago litzateke gaur horreetara makurtzea.

– DITUT / DODAZ. Aldaeron arteko aldea plural-markan datza: *-it- / -z* askoitz-hizkiak ditue batak eta besteak. Bigarrenaren bidekoak dira: *dodaz, doguz* 1. pertsonakoak, *dozuz, dozuez, dozak* 2. pertsonakoak eta *dauz, dabez* hirugarrenekoak. Eta iraganean, *nebazan, genduzan; euazan, zenduzan, zenduezan,* eta *ebazan, ebezan*. Horretarikoak logikotasunaren aldetik hobetsiak izan lehengo mende-

-mugatik honuntz, eta gudu osteko kritika zorrotzak hiperbizkaieratzat jo zituan. Eukitez badabe tradizino apur bat, batez be 1. eta 2. pertsonakoak, batez be Bizkai mendebaldean; ez, ostera, 3.koak. Idatz erabilera nagusia *ditu* edo *dituz* ereduko formen alde dago zalantza barik.

– DITUE / DITUEZ. Zelan-halango anbiguitate edo zentzu-bitasuna sor daiteke *-n / -la* atzizkidun adizki mendekoetan: *dituen* aniztuntzat hartzen bada, *dituan* beharko dau bakunean, edo *dituen* hori bakuntzat ulertzen bada, *dituezan* halabeharrez aniztunean. Ildo honi ekinez, honeen antzeko beste bikoiztasun batzuk be erraz topau geinkez: *zituan / ebazan, zitue(za)n / ebezan*, e.a.

– EBAN / ZEBAN ereduak. Iraganeko aditzetan 3. pertsonako adizkiek galdu egin ohi dabe gehienbat beste euskalkietan dirauan *z-* aurrizkia. Baina ez beti. Hizkunzkiaren ekialdean *zeban* erabilten da *eban* eredu zabalagoaren lekuan. Baina aditz trinko batzuk mendebaldeko tradizino idatzian *z-* gorde egiten dabe, beti ez bada be sarritan. Berariaz *i-* bokaldunak. Halan *zirautsan, zibarduan, (z)inoan, zirudian, zirauan* eta beste batzuk.

*Izan* iragangaitzaren jokoan be badira zalantzaren batzuk.

– ZIRAN / ZIREAN ereduak dira askoitzean. Bigarrenaren bidekoak dira: *garean, zarean, direan* orainekoak eta *ginean, zinean, zirean* iraganekoak. Jatorragoak dirudie tradizino idatziari bagagokoz, baina lehen sailekoak zabalduago dagoz aspalditxorik, eredu standarretik hurrago egonaz ganera.

– JAKE / JAKIE / JAKOE. Pertsona biko adizkietan, *nori = 3* pl. danean, *jake, jaken, jakela* irakurten da sarrien, baina tradizino idatzian ugariak dira *jakee(-z), jakee(za)n, jakee(za)la* erakoak, hiztun askok *jakie* erara ahoskatzen ditugunak. Bestalde, bizkai ekialdean bada *jakue* ahoskatzen dan aldaera be, idatzirakoan *jakoe* egingo litzatekeana.

– NATXAKO / NAIAKO ereduak, bata zein beste gitxi erabiliak dira hiztunen artean, eta idatziz be urri samarrak. Mungialdean *etorri natzu, joan nako* legezkoak bizi dira oraindino. Arrati aldeko erabilera *naia - ko* eredukoa da. Baina tradizino idatzian Bizkai ekialdeko *natxako* ger-

tatu da indartsuagoa, eta erabiltekotan hatara atzera jo behar ete gendukean nago.

– NINTXAKON / NINTZAKON. Bigarren sailekoak (*nintzakon, nintzakizun, zintzakidazan, hintzakion*) eta euren eratorri diran alegiazkoak (*banintzakio, balitzakio, bagintzakioz*) Azkuek bultzatu zituan, tradizino idatzian nagusi diran lehen sailekoak baino logikoagoak ziralakoan beharbada. Lehen sailekoak diran *nintxakon, gintxakezan, banintxatzi, bazintxataz* adizkiek daben diztirarik ez dabe egundaino irabazi, ostera.

*Eutsi* aditzaren jokoa.

Hiru pertsonako laguntzailea *eutsi* aditzaren jokoaz hornitzen da mendebal eredu guztian. Horren joko-egituran arazorik ez dago lehen atalean, *deuts-* dalakoan, nahiz Arana eta Azkuen denporetatik, zorioneko logika arrazoiokaitik, *dauts-* bultzatu izan dan, oraindino be belaunaldiko zaharreko idazleetan geriza luzea dauana, baina aditz laguntzaile erabileran gitxienez, forma sasikoa inongo zalantza barik. Altubek salatu eban gudu aurrean bertan, Azkuen *Morfologia*-ri egin eutsazan *Observaciones* eritxenetan desbideratze hori, eta gudu ostean barriro Alfonso Irigoien-ek, euskal gramatikaz egin eban lehenengoetariko ikerlan baten.

– DEUTSO / DEUTSAN, DEUTSALA. Aditz honen jokoan bikoiztasunak atzeko alderdian be emoten dira, *nori* datiboaren forma dala-ta. Gaurregun nagusi da *deutso (-z)* eredua, baina atzetik beste hizkiren bat darraionean *-a* bihurtzen da. Eta halan erabilten dira *deutsan, deutsala* (*deutson, deutsola* baino sarriago), *eutsan (-zan)* (*eutson /-zan* baino gehiago). Tradizinoak on egiten deuskun bidea dala zuzenena eristen jat niri.

– Hirugarren pers. aniztunetako -OE, -EE, -IE amaierak .

Laguntzaileak 3. pertsonako *nor* eta *nori* hizkiak hartzen dituanean, batez be aniztuna danean, forma desbardinak dabilz dantzan. Besteak beste, *deutsoe, deutsee, deutsie.* Lehenengoa barri samarra, bigarrena tradizio idatzikoa eta hirugarrena, ahozkoa. Jakina da ahoz *deutsie* for-

mapean neutralizatuak dirala *hak haei, haek hari* eta *haek haei* pertsonak. Idatzian gitxienez forma bi bereizteko joera agiri da aspaldion, *deutsoe / deutsie* hain zuzen. Bereizketa hori, dauan konbentzionaltasuna gorabehera, argigarri izan daiteke irakaskuntzan, deklinabidean erg. aniztunerako *-ek* izan daitekean moduan.

*EDIN aoristoko laguntzailean be bada bikoiztasun bat edo beste:

– DADIN / DAITEN, edota *dadila / daitela, zedin / eiten* ereduen artean, hatan be. Tradizioaren pisua lehenengoen alde dago, nahiz maila mintzatuan bigarrenok sendoago agertu.

EGIN laguntzaile iragankorraren jokoan, zorioneko *-g-* bokalartekoa erabili edo ezaren inguruan sortzen dira zalantak:

– DAGIAN / DAIAN ereduen artean. Tradizino idatzia nahiko zalantzakor agiri da honetan, bateko zein besteko formak erraz aurkitu daikeguzala. Mogelengan joera nagusia hau da: *da(g)i-* oinari bokala darraionean kontsonanteari eustea. Halan: *dagian, dagien, egian, egien, egion, egioen*, eta bestetik, kontsonantea darraionean ezabatzea. Halan: *daidan, daizan, daigun, daizun, deidan, deigun, deizun, deizuen, neizula.* Ez dakit ikasleentzat bitxi eta ilunegia gerta ete leitekean banaketa hori, baina begi eta belarrientzat gozatsua dirudi.

– NEI / NEIKE ereduak. Ahaleran *-ke* hizkia modu zalantzakorrez agertzen da mendebaldeko adizkietan. Halan, tradizio zaharra dabe *nei, lei, ginai, zinai* edota *NEIO, LEIZU, LEIOE, ZINAIT, GINAIO* sailekoek *-ke* hizkidunen ondoan. Sail honetakoak erabiliagoak dira, beharbada, gaurregun. Halan: *neike, leikeala, zeinkeala, leikeola, geinkezula* eta beste.

Aditz trinkoen jokoan *egon* aditzaren datibodun jokoa aitatu geinke:

– JAGOKO / DAGOKIO ereduen arteko zalantza ezagun da idazleetan. Forma zaharra mendebaldean *jagoko, jagotzu, jagoku* erakoa da, baina hiztunen erabileratik galdua ia edo osorik. Beste eredua, *dagokio, dagokizu, dagokit* saileko adizkiena, eredu estandarrari dagokio, eta idazle eta gramatikariak honen aldeko agertu dira sarriago.

– Era berean *joan* aditzaren iraganeko jokoan JOIAN / JOAN ereduen artekoa. Lehenengoaren ildotik, *ninoian, joian, ginoiazan, zinoiazan, zinoiazen, joiazan* ditugu, eta bigarrenarenetik, *ninoan, ginoazan, zinoazan*. Lehen ereduak dirudi gomendagarriago, batez be 3. pertsonako *joan* horren zentzu bikotxagaitik.

– *Euki* aditzagaz be izan dira noraezeko aukerak. Halan DAUKA / DAUKO ereduen artean lehenengoa da sustraituagoa, *daukadaz, dauka - guz* erako adizkiekin, ze bigarrena barriagoa da alde guztietara, nahiz mendebaldeko hiztunetan harrera zabalagoa izan (*daukodaz, dauko - guz, daukozuz*).

-AN / -EN aditz-atzizkien artean *-an, -ala* jagokoz normalean mendebal hizkunzkiari, giputz euskeran be dan joera berbera. Aditz trinko batzutan, ostera, *-en* atzizkia dakusku. Halan *datorren, dakarren, dabi - len*. Baina *-z(a)* atzizki aniztuna danean salbuespen barik beti *-zan, -zala*. Halan *zentozan, etozan, zenbiltzan, ebiltzan*. Idazle edo gramatikalari batzuen aldetik, eredu estandarraz parekatzeko *-en, -ela, -zen* atzizkiak normalizatzeko joerak izan dira, baina gure eretxiz, jokabide horrek konpondu baino deskonpondu gehiago egingo leuke, aditz askoren kasuan *-an, -ala, -zan / -en, -ela, -zen* partiketa bakunaniztunen bereizgarri dalako bokal-diferentzia horren bidez; bai aditz iragankorretan: *zenduan / zenduen, zeunkan / zeunken, daukala / daukela,* eta bardin iragangaitzen forma batzutan: *zinoiazan / zinoie - zan, zentozan / zentozen*.

3.2. *Partizipio eta aditzizenak*

– Partizipioetan -A(D)U eredukoak mendebalde guztian barreiaturik dagoz erromantze-mailebuen artean. Halan *aparau, bendau, kantau, plantxau, probau,* edo *subertau* partizipio-moduan ditugu, euskalki enparaduetan *-atu* amaiera eukiko leukeen aditzetan. Baina euskal sustraikoak diran edo mailebu guztiz zaharrak diranetan be amaiera berberau asmetan dogu *miazkau, barriztau, gorrotau, gomutau, irabiau* edo *ezkutau* aditzetan. Idatzizkoan eredu estandarragaz parekatzeko joerea da nagusi, baina gogoan izan behar da mintzo-eredu horrek tra-

dizino sakona dauala idatziz, edo *-au* edota *-adu* aldaerekin. Halanda be, bigarren era honetakoak —*kantadu, pagadu* edo *prestadu* adibidez— arkaismotzat jo behar dira gaurregun.

Sail honetakoen arazoa aditzizenetara be hedatzen da, Bizkai eremu zabal baten aditzok *-eta(n)* erara izentzen diran ezkero. Halan *abietan, aparetan, kantetan, olgetan, engainetan, susmetan* edo *errezetan*. Zehatzago esateko, mailebuzko aditzetan joera hirukotx edo laukotxa dago gitxienez mendebaldean. Idatziz hedatuen dagoana *pentsatzen* izan daiteke beharbada, baina berbeta mailan hedadurarik handienekoa *pentsetan* da dudatzeke. Eredu honek, bestalde, literaturan sustraiak ondo harturik ditu. Hizkunzkiaren ekialdean garrantzizkoak dira beste aldaerok be: *pentsaten* (Artibai aldean), *pentsaiten* (Oinatin).

– -GI / -KI atzizkiak euskalki-bereizle dira aditz-mordo baten, lehengoa jagokola mendebaldeari: *jagi / jaiki, eregi / eraiki, edegi / ireki*. Aparte itxi beharko lirateke *jarraigi* edo *eugi* legezko arkaismoak.

– Aditzizenetan -TZE / -TUTE ereduen arteko norgehiagoka be bada *-tu* atzizkidun aditzetan. Gaurregungo joerak ikusita, mendebal euskeran be *baztertzen, apurtzen, parkatzen* edo *ondatzen* erabiltea hobetzat jo leiteke. Mogelek hobesten dauan *-tute* atzizkiak silaba bi eukitearen eragozpena dauka bestetik.

– Bizkai erdi eta mendebaldean -TZEAN (ahoz *-tzien* be bai) egiten dabe silaba biko aditz batzuk, aspaldi zaharrean *-tzaiten* egiten eben berberak. Halan esaten dira oraindino leku askotan: *hartzean, batzean, galtzean, kentzean, saltzean, sartzean*. Daben hurkotasunagaitik, *hartzen, batzen* erabilteak ez dau ezelako eragozpenik.

– -TE / -TZE amaieren nahasketa be ezaguna da. Mendebaldean berez *-te* hizkidunak dira *-i* amaieradun partizipio guztiak. Halan, *etorte, ekarte* erara izendu dira *etorri, ekarri* aditzak. Bardin *-e*, *-a* eta beste amaiera batzutakoak. Mendebal euskerako aditzizenetan *betete, errete, aterate* edo *hilte* erakoak dira nagusi. Autore batzuk *-tze* aukera egitea eredu estandarragazko bardintasuna bilatzeagaitik izan dala esan daiteke.

– -KETA / -ETA ereduak.

Partizipioa *-tu* egiten daben aditzek Bizkai mendebaldean ez dabe *-tute(n)* egiten, *-(e)tan* baino. Halan entzun daiteke Arratia zein Txorierri edo Mungialdean oraindino be, *agin(e)tan, ezkon(e)tan, adi(e)tan, ulerr(e)tan, ezetan* (ezaguetan), guztiok tradizino zaharrean *-etan* amaiera ebenak.

Multzo honetako aditzok *-ketan* egiten dabe Lenitz haraneko berbaikunean.

Berbaikune hori dan ingurunerako eginiko idatzietan baliagarri izan daitekez ereduok, gorago aitatu ditugun beste nominalizazinoetan jazoten dan antzera, baina hizkunzkiaren maila jasoagoan goian aitatu dogun *-tze* forma orokorrak abantaila handiagoak dituala dirudi.

### 3.3. *Deklinabidea*

Deklinabideko formen artean aldaerak eskeintzen dabezan bat edo batzuk aitatuko ditut.

-AK / -EK ergatibo aniztuna.

Ergatibo pluralean *-ek* erabiltea euskara batuaren erritmora zabaldu da, eta euskalkizko idatzietan be bardin, nahiz erdiko eta mendebaldeko tradizio literarioetan sustrai zaharrik izan ez. Geroari begira, ekialdeko forma hori geugantzeak abantailarik atzerapiderik baino gehiago dauala pentsa daiteke, hizkeraren argigarritasunerako.

-(R)ENTZAT / -ENDAKO / -ENTZAKO atzizkiak.

Deba eta Leintz aldeko uri eta herrietan zabal dabil *-(r)endako* atzizkia benefaktibo kasuan. Gure ustez, ahoz erabilia dan eskualdeetako edo hara zuzenduriko testuetan —idatzi zein ahozkoetan— guztiz gomendagarria da atzizki hau. Halan idatz daiteke *Peurendako, gizo-narendako, honendako, zuretako* edo *guretako.*

Bizkaiko leku askotan *-(r)entzako* aldaera erabili ohi da berbaz. Edozelan dala be, ezin da ukatu forma zuzena dala, eta ez adnominal legez, adizlagun legez baino. Adnominal legez ez da, guk dakigula, inon erabilten forma hori, aditzari dautsala baino. Halanda guzti be, idatz zere-

ginetarako *-(r)entzat* aldaera nagusia hobetsi behar litzateke nahinon, literatura-tradizinoan agiri dan forma nagusia hau da-ta. Gaurko idatzietan *-entzako* adnominala danerako gordeteko joera dago.

-GAZ / -EKIN atzizkiak.

Soziatibo kasuan mendebal hizkeretan entzun daiteken atzizki bakarra ez da *-gaz*. Egia da Mogelek, nahiz bera Markinaldekoa izan — edo Eibartarra nahi badozue, baina edozelan be mendebal euskeraren ekialdekoa—, *-gaz, -agaz, -akaz* darabilzala, hau da, atzizki bera sing. zein pluralean. Forma-erregulartasun hori Bizkaiko mendebal eskualdeetan jagoten da. Baina Bizkai erdi eta ekialdean pluralean *-akin* erabilten da berbaz, eta Deba-Leintz aldera etorri ezkero, singularretik be aldendu da gehienbat *-gaz* eta *-(r)ekin* danerako nagusitu. Konplexutasun hori kontutan euki beharko litzateke edozelan be eredu jasoago edo herritarragoa erabilteko orduan.

-AKAZ / -EKAZ soziatibo aniztuna.

M. Zarate izan zala uste dot, soziatibo pluralerako *-ekaz* proposatu ebana bere *Euskal Deklinabidea*-n. Harrezkero asko ugaritu da idatzietan. Gu, dana dala, lehengoari eustearen aldeko gara: *-akaz*. Besterik da *-akin / -ekin* aldaeren arteko arazoa, euskara estandarrean aspaldi ebatzita dagoana.

-GAITIK / -GATIK motibatiboa.

Honetan *-gaitik* da bizkai euskeraren ezaugarri nagusia, *-gatik* giputz euskera eta ekialdekoena dan legetxe.

-TAN / -ETAN inesiboa.

Forma bion arteko zalantza *zu* atzizkidun pronominaletan azaltzen da argien. Halan *batzutan / batzuetan, zertzutan / zertzuetan, zein -tzutako / zeintzuetako* eta halakoetan. Tradizino idatzian be isladatzen da forma bitzuon arteko zalantza. Berbaz nagusi diran formak, dana dala, *-tan, -tatik, -tara* erakoak dirala esan leiteke.

Inesiboaren eremuan bertan -(E)N forma zaharra bizirik dogu oraindino mendebaldean, berariaz ekintza-zentzua adierazo behar danean.

Halan erabilten dira *atxurren, beharren* (Arrati aldean), *itaurren, jorran, lapurren* (lapurretan), baina guztietan emonkorrena *-ginen* atzizkia dogu, hatatik erakarri leitekezalako hainbeste ekintza-berba: *jatekoginen, etxeginen, bideginen* eta antzekoak.

Era berean, *baten* eta *batean,* bata mugagabea eta bestea mugatua, zehatz bereizten dira mendebaldeko euskeran.

-TIK / -RIK / -TI ablatiboa.

Mendebaldeko tradizinoan eta berbakuntzan erabiliriko hiru aldaerotatik, *-tik* da indartsuena gaurregun, euskara osoan legetxe. Beste bien artean tokia egin behar jako gitxienez eredu landuan be, *-(r)ik* formari. Ez bakarrik tradizino zaharrekoa dalako, ezpada ekialdeko euskalkietan be hedaturik dagoalako, eta oraindino esparru semantiko batzuen ezaugarri dalako eskualde askotan, berariaz denbora-eremukoa. Adib.: *urte -**rik** urtera alogerak geldi eta erosgaien salneurriak gorantz doaz.*

-RANTZ / -RUNTZ adlatibo zuzenbidekoa.

Aldaera bitzuk dira ezagunak: *etxerantz(a)* edo *etxeruntz* esan ohi da. Gain ikusi baten esan daiteke, bizkaieraren barruan *-rantz* mendebaldekoa dala eta *-runtz* ekialdekoa. Egia da, bestetik, mendebaldean *-rantz**a*** aldaera be zabal dabilela, nahiz idatziz islada apala euki dauan. Aldaera nagusi biok arazo barik erabili leitekez zein bere esparruan.

-RAINO / -RA GINO adlatibo amaituzkoa.

Aldaera zaharkitutzat jo behar da gaurregunean *-ra gino,* mendebalderengo testu idatzietan eurrez agiri dana. Gaurregun, bada, onartuago eta erdikoago dan *-raino* erabilteak gomendagarriago dirudi.

-GAN, -GANDIK, -GANA leku-denporakoak.

Erdialdeko eta ekialdeko hizkunzkietan genitiboaren gainera eregi ohi dira bizidunekin ohi doazan atzizkiok, eta sarriro *-rengan, -aren -gan, -engan* itxurako formak erabilten dituela.

Mendebaldeko tradizinoan edota berbakuntzan nekez aurki daiteke genitibo horren lorratzik. Izen-oinaren gainean eregiten da atzizkia.

Halan bada, *edozein gizonegan, gure gizonagan, senar-emazteakan*.

3.4. *Izenordainak eta eratorriak*

ZUEK / ZUOK

Lehenengoaren alde dago tradizinoa eta berbazko joera nagusia.

ZEUEK / ZEUROK

Bigarren perts. aniztunerako forma nagusia *zeuek* izanagaitik, Nerbioi ibar eta aldeeretan bizi dan *zeurok* guztiz erabilgarria da ene ustez literaturan, dauan zahartasun eta tradizinoagaitik (beste aldean Leizarragak berak erabilia).

NIRE / ENE

Lehen pertsonako posesiborako *nire* da gaurregun forma bizia. *Ene* zaharra, bizirik iraun bai, baina adierazkortasun-kontestuetarako da erabilia: *Ai ene, ene mutilak!, ene-enetxua!* eta holakoetan.

NOK / NORK ereduak. Jakina da izenordain eta hurreko kategorietan azken posizioan dagoan *-r* kontsonantea jausi egiten dana mendebal euskeran, ondoren beste kontsonante bat darraionean. Halan *nok, nogaz, nogana, zek, zegaitik, zetan, ezelan, inogana* edo horren eredukoak erabili izan dira gure tradizioan. Eurei eutsi ala eredu estandarreko diran *r*-dunez ordezkatu behar dan da auzia, idazle batzuk egiten daben modura. Bide zaharrak, halanda be, ahozko erabilera dau bere alde.

NOR EDO NOR / NONOR ereduak.

Banaketaren alde batean *zer edo zer, non edo non, noz edo noz* eta euren segidakoak ditugu, eta bestean *zeozer, nonon, nozonoz* eta abar. Eredu landu eta mintzatuaren islada dira batzuek eta besteak. Biak erabilgarriak, hizkuntzaren maila jaso edo zeheagoan.

*Erakusleak*

HONEEK / HONEIK ereduak. Autoreen arabera forma bata eta bestea erabilten badira be, *honeek, horreek* formak tradizinoak hobeto babes-

turik dagoz bigarren sailekoak baino, eta gomendagarriago lirateke, beraz, idatzizkoan.

HAREEK / HAEK ereduak.

Jakina da 3. graduko erak. aniztunaren forma zaharra mendebal euskeran *(h)aek* dala, gaur Arrati, Txorierri eta mendebal partean ahoskatzen dan *(h)aik* formaren aurretiko klasikoa. Horren aldamenean *(h)areek* eredua zabaldu da idatziz eta ahoz mende honetan, eta gaur be harrera hobea dauala honek esan leiteke.

HATAN / HARETAN inesibo bakuna eta honetatik datozan toki-denborazkoetan bikoiztasun bera nabari da. Klasikotasunaren lilura daben *hatan, hatatik, hatara* ereduak oraindino be erabilgarri diralakoan nago.

-XE / -TXE atzizki indartzailea.

Bata eta bestea eremu bereizietan, edota biak distribuzio osagarrian erabiliak dira mendebal euskeran. Halan *honexek / honetxek* erg., *honeexek / honeetxek* aniztuna, *hemengoxe / hemengotxe* aditzondoak eta euren jarraigokoak. Posizioan be bikoiztasuna dogu forma batzutan: *honexetan / honetantxe*, *harexetara / hataraxe.* Bateratu beharreko bikoiztasunak dira, nahiz tokian tokiko testuetan bertako eredua guztiz egokia gertatu.

### 3.5. *Hizki eta posposizio batzuk*

BERE / BE / ERE formen artean *be* izan daiteke gaur hedatuena. Baina ez da ahaztu behar *bere* klasikoa Mungialde eta Uribe-kosta aldean bizirik dagoala. Idazle batzuk bizkaieraz *ere* erabiltearen aldeko agertu badira be, bide horrek ez dirudi gomendagarriena.

Izan be, alkarketa-prozesuetan erabilia danean emaitzak bereziagoak urteten dabe. Halan, *halanda be* (*hala ere*), *hatan be*, *edozelan be* (*nolanahi ere*), *bape* (*batere*), *ezebez* (ezer ez), *inoiz be* (*inoiz ere*) eta abar.

-LAKO / -LANGO ereduak.

Era bitara idatzirik ikusten dira *horrelako / horrelango, halako /*

*halango, zelako / zelango,* edota posposizio huts diran inguruneetan: *(ni, zu, gu) lako / lango.*

BARIK / BAGARIK, BAKO / BAGAKO ereduen artean, *barik, bako* erakoak indartsuago agiri dira gaur beste klasikoak baino.

## 4. Koherentziaren bila

Lexikoaz ohar batzuk eginez hasiko gara.

Berbak berez hizkuntza osokoak dira, edo hatakotzat hartuak izateko eskubidea dabe idazlearen luman. Euskara batuan idazten dauanak bizkai, giputz zein ekialdeko tradizinoko berbak hautatu leikezan eskubide beraz erabili leikez mendebal euskera darabilenak beste tradizinoetako berbak. Idazle, esatari edo irakasleak ezetariko galga edo hesi barik eskubide osoz hautatu leike euskal harrobiko edozeinbere berba. Horretan nork bere buruari hesi edo muna estuak ipintea kaltegarri da, hizkera soildu eta mehazten dan ezkero.

Euskalkiz idatzi daben autoreetan beste euskalkietara jotea ez da gauza barria. Gudu aurreko belaunaldiak be baeban ekandu hori. Azkueren hiztegiak idegi ebazan oparo horretarako bideak. Han, jasoriko berba bakotxa non batua dan zehazten da, ez euskalkia bakarrik, baita herri edo eskualdea be, eta idazleren bati jasoriko adibidea danean be garbi aditzen emoten da. Halan bada, Azkuek berak, Orixek edo Otxoluak —kasu argi batzuk ipintearren— sarri joko dabe hango edo hemengo tradizinora, eta guztiz be euren hurreko euskeran konzeptu jakinen bat adierazoteko berba aproposik idoroten ez dabenean. Gerraosteko belaunaldian bardin esan daiteke Jon Etxaide, Eusebio Erkiagaz edo Mitxelenaz beraz.

Halanda be, dana dala, edonondik hartze horrek ez dau kentzen gitxieneko koherentzia baten beharra. Eta koherentzia orekan dago: zenbat hartzen dogun darabilgun hizkuntza-ereduaren tradizinoko altxorretik eta zenbat besteetarik. Lapurtar edo behenafartar usainaz edo hango eredura idatzi nahi badau handiko idazle batek, hango ondareaz baliatuko da gehienbat, eta estilo aldetik zehaztu, aberastu, diztiratu

edo txukuntzeko joko dau ondare orokor edo zabalagora. Bizkai euskeraz be antzeko zerbait behar genduke. Geure tradizino idatzia, hasi 18-19. mendeko klasikoetatik eta 20. mendeko modernoetara eredu horrezaz baliatu diran autoreen obrak ezagutu eta euren ondarea geugantzetik abiatu beharko genduke batetik. Baina baita, gaurregungo hiztun euskaldunek gure herri, uri, eskualde edo lurraldean erabilia dana ondo ezagutu eta hazaz baliatzetik bestetik. Eta gorakoan, beste iturrietara jotea aberasgarri gertatuko da. Bestela, bardin bizkai euskeraz idazten danean zein estandarraz egiten danean, nahasmahas hutsa edo edonondikoa kontrol barik ora baten batzeak ondoren txatxarra euki leike. Hizkera hori inongo kutsu bakoa gerta leiteke, jatorriaren usainik be inok hartzen ez deutsala; berba baten, idazkera gauzeztana eta lorrina, emaitza kazkarra. Honetan, jakina, autore bakotxak bere gustuak ohi ditu. Batak lapurtera klasikoaren sundea txertatu gurako dau, besteak goi nafar hizkera makalduaren lilura berreskuratu, urliak gipuzkera tradizino zahar eta ahozko biziaren arteko oreka bilatu, berendiak lapurtar klasikoen estiloa bizkai mintzairako esamoduekin batu. Hor ez dago inori munarria ipinterik. Sortzaileak bidea libre behar dau eta sortzaile bakotxak bere hizkera-estilo berarizkoa bilatu behar dau, nor edo nor izango bada.

Baina bakoiztasun berezi guztiok gorabehera, bada hizkunzkieremu bakotxean ezaugarri-sare bat, idazle bat hangotzat edo hemengotzat salatzen dabenak, edo salatu behar leukienak, baldin idazle horrek tradizinotik nahiz gizartetik iruntsi dauan hizkera-jarioa bere idazlanetan isladatzen jakin badaki. Ez dot esango hori ezinbesteko danik, baina osasungarri bai, idazlearentzako bestean irakurlearentzat.

### 4.1. *Euskalkiaren lexikoa*

Gogoeta guzti honegaz esan gura nebana hau da: bizkai euskera deritxogun horrek be, morfologia-bereizgarri soilez ostean, beste ezaugarri sakonago batzuk isladatu behar dituala, eredu mardula eta trinkoa izango bada.

Urrunago joan barik, hautatzen ditugun hitzetan datza ezaugarri-

sare horren alderdi bat. Gaurregungo estandarrean sartu diran hitz batzuk salatu leikee idazlearen jatorria: *ostera, ostean, barik* legezkoak sarri irakurten dira. Baina urruntxoago joaz, mendebal usaineko berbak txitean-pitean aurkituko ditugu: *amaitu* (bukatu), *gogaitu* (aspertu), *jezarri* (eseri), *orri* (hosto), *arineketan, antxintxika* (korrikan), *itaun* (galdera), *jaramon* (kasu egin), *jardun* (ari izan). Esapideetan be bardin: *sekula baino hobeto* (behin ere baino hobeto), *adi egon!* (erne egon!).

Mendebaldeko batek eredu estandarrean idazten dogunean, jakina da beste euskalkietako hitz eta esamoldeak sartzeko joera handiagoa eukiko dauala, bizkaiera egiten dauanean baino. Errazen gipuzkera tradizinokoak sartuko ditu, behinola baten Mogelek, gerorago Azkue edo Altube batek, eta oraintsurago Erkiaga edo Akesolo batek egin daben antzera. Idazle horrek gehienetan borondate handiko ahalegin bat egin beharko dau sarritan, estandarrez dabilenean irakurleak mendebal jatorria igarri degion.

Baina ahalegin hori askoz txikiagoa izango da idazteko edo ahozkoan bizkaiera darabilenean. Bere hizkunzkiko literatura eta berbaikune bizia ondo azterturik baditu, berez legez urtengo deutse *abade, atzamar, behargin* berbak, *apaiz, behatz* edo *langile* ordez. Pertsonaia batzuk igarri barik deskribatuko ditu *lodi* eta *argal* modura, *gizen* eta *mehe* legez barik. *Gabon, Natibitate* eta *Gabonzahar* ospatuko ditue, edota *zezeilean aratosteak*, eta luze ekin geinkeo soka horri.

Bizkaierako berbaren batzuk emongo ditut adigarritzat: *itandu* (*gal - detu*) tradizinotik jaso dogun berba ezagutu beharrekoa da, berbaz sarriago *preguntau* badarabilgu be. Tradizino honi lotuago egongo dira *oratu, txarto, umea, urrun* berbak, honeen kide diran *atxiki, gaizki, haur* edo *urruti* baino.

Eremu semantiko edo sintaktiko berbera beteten daben hitz-forma bi diranean, zentzuzkoena beti izango da idatziz darabilgun ereduari berez joakona hautatzea, nahaste alperrekoetan sartu barik. Adibide bat ipiniko dot. Informazinoa zeharka emon gura danerako bada euskeran aditzari dautsan modalitate-hizki bat, *ei,* erdi eta ekialdean *omen* forma

dauana. Honeen arteko nahasketak behin baino sarriago ikusten dira bizkai ereduan. Beste horrenbeste, itaun erretorikoak egiten diranean, bizk. *ete* eta gainontzekoetan *ote* forma dauanaren artean. Bardin jazoten da *be* eta honen aldaera klasikoa dan *bere* hizkiakaz. Orokorragoa dan *ere*-z kutsatua izan da. Ezeztapena adierazoten dauan *barik* edo *baga* zaharragoaren lekuan, erraz aurki daiteke *gabe* giputz eta enparaduetakoa.

Honetatik erakutsi gura dodana da, norberaren euskalkiari idatziz etekina aterateko borondatea dauanak, honek barruan dauan hitz-altxorra ondo ezagutu behar dauala. Eta ezagutze horrek ardatz biak hartu behar ditu: tradizino idatzia eta ahozko erabilera.

4.2. *Hitzen forma.*

Euskalkia idatziz erabili gura bada, gure kasuan bizkaiera berbarako, eredu horretako hitzen mamidura fonetikoa ezagutu eta finkatzetik hasi behar da. Eta honetan egin ohi direan hutsak zuritzeko ez dau balio hiztegi on baten hutsunea atxakiatzat hartzeak. Hori halan izanda be, literatura-tradizinoa ondo edo itxura baten ezagutzen dauanarentzat ez da hori goitu ezineko tontorra.

Mendebal euskeraren forma-ezaugarri nagusiak ondo deskribaturik dagoz Mitxelena eta beste batzuren ikerlanetan. Alperra litzateke hemen berezitasun guztiok koadru paradigmatiko baten sartzea. Baina adigarritzat ezarriko ditut gane-ganetik bat edo beste, eredu estandarragazko bereizitasunak markatuaz.

*-a/-e.* Mendebal euskeran asko dira *-a* amaieradun berbak, enparduetan *-e* egiten dabenak. Joera hori ez da barria; testurik zaharrenetarik datorren ezaugarria baino. Joera horretakoak dira: *albista* (*albiste*), *andra* (*andre*), *laba* (*labe*), *landara* (*landare*), *lora* (*lore*) eta beste asko.

*-a- / -e-* alternantzia berba barruan be badogu. Halan: *baltz* (*beltz*), *barri* (*berri*), *hazur* (*hezur*), *txarri* (*txerri*), *garri* (*gerri*), eta hasieran *alkar* (*elkar*) izenordainaren kasuan. Ildo beretik *dana* (*dena*). Baina

bestalde mendebalde tradizinoan egitura zaharrekoak dira *atera, (h)aserre* eta *bazter*, *kume* berbak, eredu idatzian jagon beharrekoak, ahoz zabaldurik dagozan *atara* (edo *etara*), *(h)asarre*, *baztar* edo *kuma* bultzatu barik.

*-i- /-e-* bokalen dantza horretan, mendebaldeko joera lehenengoa da ondokoetan: *agiri* (*ageri*) eta *bildur* (*beldur*)

*-u- / -e-* bokalen txandakakoan, lehengoa dagokio mendebalde euskerari. Halan: *guzur* (*gezur*), *iruntsi* (*irentsi*).

*u- / i-* hasiera-bokaletan, mendebal joerakoak dira lehenengoak: *ule* (*ile*), *untze* (*iltze*), *huri* (*hiri*), *urten* (*irten*), *urun* (*irin*). Baina *izen / uzen* bikotean mendebal eremurik handienean lehenengoa da nagusi, *uzen* mendebalderengo ertzean bakarrik jagoten dala (Uribekosta, Orozko e.a.). Beste hainbeste jazoten da *intxaur* berbeagaz, *untxaur* aldaerak bazter-bazterrean baino ez dirauala, eta azkenez *igeri / uger* aldaerei jagokenez, biak dagoz indartsu, bata ekialde, bestea mendebaldean. Ezin da hartu bizkaiera-bereizgarritzat *urrin* daroan *-i-* bokalagaitik, ze *urrun* Bizkai erdi eta ekialde guztian zabaldurik dago-ta.

*-i- / -u-* alternantzian lehenengoa dagokio mendebaldeari ondokoetan: *gitxi* (*gutxi*), *itxi* (*utzi*).

Kontsonanteen arloko bereizgarri batzuk aitatuko ditugu.

*-tx / -itz* bikoiztasuna garrantzi handikoa da eredu-bereizgarri legez. Mendebaldean aldaera bustia dogu erdi eta ekialdean *-itz* dogun berba askotan. Halan: *atxakia* (*aitzakia*), *bakotx* (*bakoitz*), *eretxi* edo *eritxi* (*eritzi / iritzi*), *gatx* (*gaitz*), *hatx* (*haitz*), *atxina, antxina* (*aintzina*).

*b- / Ø* oreka dogu *buztarri* (*uztarri*) berban.

*-d- / -l-* alternantzia *bedar* (*belar*), *edur* (*elur*), *idar* (ilar) edo *idargi* (*ilargi*) zaharrean.

*t- / d-* hasierakoen joerak ez jagokoz berez hizkunzkiari, eskualderik eskualde be asko aldatzen dira-ta. Berba batzuk, *torre* (estand. *dorre*) kasurako, modu berean ahoskatzen dogu mendebalde eta

erdialdean be. Baina beste berba batzutan leku laburrean emoten dira bikoiztasunak: *gorbata / korbata* adibidez.

*k- / g-* eta *p- / b-* alternantzietan be arazo bera dogu. Berba batzutan, dana dala, mendebaldean joera bateratsua dau. Halan: *kerexa* (*gerezi*), *parkatu* (*barkatu*).

*-an / -ain, -un / -uin* amaieretan lehenengoa jagoko mendebaldeari. Halan: *gan(e)* (gain), *zan* (*zain*) lehenengo eredukoetan eta: *bigun* (*bigun*), *gun, mun* (*muin*) bigarrenekoetan. Era berean, *-al / -ail* alternantzian, *zal* (*zail*) dogu.

*-n / Ø* amaieretan be *garaun / garau, zentzun / zentzu* legezko bikoiztasunak dira.

Guzti honegaz aditzera emon nahi da, zein eredu hautatzen dogun idazteko, lexikoan be hari jagokozan ezaugarriak jagotea komeni dala, ahal dala interferentzia nahastegarrietatik alde eginez. Hain bitxia da euskara batuan *barri, gatx* edo *urten* idaztea, zein bizkaieraz dihardugunean *aipatu* (*aitatu* behar geunken lekuan), *iritzi* edo *belar* idaztea.

## 5. Azken zertzelada

Eta amaitzeko, inoren testuen zuzenketan behin baino gehiagotan jazo jatan hau gomutara ekarri gura dot. Sarritan subertatu jat *Idatz & Mintz* aldizkarirako edo Labayru Ikastegian ateraten ditugun liburuetarako bizkaierakotzat etozan testuan orraztu beharra. Ze asko dira, bizkaieraz idazten dabela uste dabenak, paradigmetan euskalki horretakotzat datozan adizkiak eta *-gaz* bat edo beste sartu ezkero. Ez behin edo birritan, ezpada behin eta barriro bizkaierazko testu modernoetan ikusi dogun kutsapen edo interferentzia-joera horrek idazle, irakasle, hizlari eta euskalzale gazte asko dauka noraezean, zer egin ez dakiala. Noraezean dagoz, sustraiak ondo hartu bako landarak diralako. Irakaskuntza-prozesuan, ez eskolan ez goi-ikastetxean, ez dabelako mendebaldeko hizkunzkiaren ikasketarik egin, ez gramatika-ezaugarrien aldetik, ez literaturaren aldetik. Hutsune horrek sortu dau noraeza belaunaldi gazteetan eta hain gazte ez diranetan. Helduen artean,

Derioko Ikastaroari eskerrak arindu da zati baten hutsune hori, baina horren eragina gizartearen zati txiki batera baino ez da heltzen, ez gehienetara edozelan be.

Hori izan da batez be hona arteko lerrook idaztera bultzatu nauena, ea horretara orain arteko eztasunak arindu ahal baleitez edo. Eskerrik asko.